

OSOQUNEKO ERAKASKERA (1) ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

1995-96

- 1. Zer dira burdin-bidetako langileak?
- 2. Zer berdinkatzen du gizonaren bizia idazlariaz?
- 3. Zertaz mintzo da idazlaria?

II

BURDIN-BIDETAKO¹ LANGILEAK

Gutitarik egin du², azken bi aste hautan, ez baita Frantzia guzia xahutu³, odol kolpe batez bezala; eta oraino ere gaitzaren garhaitzera doalako espantu⁴ guti egin ditake.

Gizonaren bizia zainek eta zainen barnez barne dabilan odolak balin badaukate, halaber egungo eguncan bizipide, lanbide, ari, edari, negozio, erresumaren goiti-beheitia⁵, hots, bizia, hor da, burdin-bide hoitan. Hoiiek derabilate jendea, gau eta egun, harat hunat, eta zer jende keta⁶ izigarria!

Orga, karrosa⁷, beribil⁸ eta botiga⁹, bertze guziak oro deus guti dire, banazka ala oro elgarrekin, burdin-biden aldean.

Horra non gelditzer diren, oro batean, burdin-bidez dabiltzan guziak, hoitako langilek lanari uko eginik, orok elgar hitzharturik, beren ustez.

Bihotza eta zainak lokartzearekin, oro lo. Bizpahiru egun bereziki hor iragan dire, beldurtzeko baitzen, etzadin gehiago trein bat higi nehorat, ez aitzinerat, ez gibelerat; oro zank¹⁰, hanxe lokarturik, erran dena, geldi ziten.

Lo egon balire oraino! Lana ba lo; langilen besoak, hortzak eta hertzeak¹¹ zortzi egun gabe loaz bertzerik nahiz ernatuko zirela, ezta dudarik. Orok betan¹² lana uztearekin laster ikusiko ginituen kurinkaz abiatzen, jateko bilha Den lekuan loth.

Gose denak ahal duena eginen baitu, bizi nahiz.

Tripa hutsik duen gizona bat bederazka ere zernahiri jazaritzeko aiherr¹³ balin bada, zenbatez gehiago, chunka, milaka direnean gose eta egarri, eta alfer... elgar sustatzen¹⁴ dutela gerlaren pizterat, nonbeitik hatzemaiteko ahoratekoa.

Beharrik¹⁵ da hor beldurtzeko zena ez gerthatu. Debruak zeramatzan bertzenaz gobernamentuak eta oro. Eta zalhuxko lurperat sarthuko ziren zenbeiten furruriak¹⁶; iduri zernahi badi-rela, haizeari erhautsak¹⁷ baino gehiago ez baitzuten iharduk ahalko «nor gira gu» larruak atxik ahala urguluz hanturik¹⁸ dabiltzan batzu.

III ADITZ IKASKUNTZA-

- 31. Badankate 32. Derabilate
- 3. Dabiltzan 3: Etzadin.

31. EDUKI: tenir. Indicatif Present Singulier

Hura = le, la (complément direct pronominal)

- Nik daukat = je le tiens
- Hik daukake = tu le tiens
- Zuk daukazu = vous le tenez
- Harek dauka = il le tient
- Guk daukagu = nous le tenons
- Zuek daukazu = vous le tenez
- Heiek daukate = ils le tiennent

32 ERABILI: manipuler etc. Indicatif Present

Hura = le, la (Cpt direct pronominal)

- Nik derabilat = je l'utilise
- Hik derabilake = tu l'utilises
- Zuk derabilazu = vous l'utilisez
- Harek derabila = il l'utilise
- Guk derabilazu = nous l'utilisons
- Zuek derabilazu = vous l'utilisez
- Heiek derabilate = ils l'utilisent.

33 UKAN. Subjonctif Imparfait

Objet sing.

Objet Pluriel

- Nik ukan nezan (que je l'uisse) ukan mitzan = que je les eusse
- Hik " hezan { " hitzan {
- Zuk " zinezan { " zinitzan {
- Harek " zezan { " zetzan {
- Guk " ginezan { " ginitzan {
- Zuek " zinezaten { " zinitzaten {
- Heiek " zezaten etc { " zetzetan etc {

EREMAN. Conj. forte Indic. Imparfait

- Nik neramatzan = je les emmenais G. gineramatzan = = nous les emmenions
- Hik heramatzan = tu les emmenais = = tu les emmenais
- Zuk zineramatzan = vous les emmeniez Z. zineramatzan = = vous les emmeniez
- Harek zeramatzan = il les emmenait Heiek zeramatzaten = = ils les emmenaient